



# TXIRRITXOLA

18. ZENBAKIA - 1997.EKO MARTXOA - BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

## BERTSOAK NONAHI, baita BAKION ERE

Ostera be aratuste sasoiari urteroko bertso-afaria ospatu genuen, itsaso arrear dagoen Itsaso tabernan. Jantokia

jendez gainezka, giro epela, gazte ugari eta helduak ez horren beste; Bertsozaleen arteko erreleboa?

Polito afaldu bagenduan be, bertso-gose urten ginan sioetik, eta barreak errementa; hurrengoari itsaron behar..

Horra hor agurrerako bertsoak:

Peñak;

Bertsolarien papera  
hartu atzekoz aurrera  
izanez ere, kanta ta kanta  
ia aspertu gara,  
taberna edo elkartera  
barriro biok batera  
Bakioraino helduko gara  
txakolina edatera

Lizazok;

Hemen kanta eta kanta  
buila eta zalaparta  
eskerrik asko horren arretaz  
bait gaituzue aguanta  
bromak esanak bromatan hartu  
ihauteriak dira eta



**- . ARTZAINZAREN NONDIK...  
- . ARATUSTAK ARRAKASTA ESKASA...  
- . BAKIO HERRI EUSKALDUNA  
- . ZER ESAN UGARI  
- . ITSAS ALDEREN BARRIAK  
- . MAULEKO IKASTOLA...  
- . EPERRA MAULEKO IKASTOLA...  
- . KORRIKA**

SABELAK EGITEN GUR-GUR, BART GAUEKO AFARIA AGUR

**ARTZAINZAREN NONDIK-NORAKOAK BAKION**

Argazkietan ikusten dozuen honek, INAZIO EGILUZ-EK, «GORRI» hain zuzen, ez dau behar aurkezpenik,

danon ezaguna dogu eta.

Gaur desagertzeko zorian dagoen bizibide honek, ARTZAINZAK, merezi dauzela uste dogu lerro batzuk

eta nor hobeto GORRI baino honetaz berba egiteko.

Etxeko atarian argazki bat ateratzen dautsagun bitartean «Benguriene» deitzen dogun baserri honek lehen

«Sur Ugarteberri» izena zeukala adierazten dauzku.

G. Noiztik dedikatu zara, Gorri, lan edo ofizio honetara?



E. Beti dedike naz, beste bier batzuk be egin dodaz, obratan apur bat, itsasoan beste apur bat, baina gehien-gehien ardiekaz ibili naz.

G. Erretiratseko asmoan zabiltzela entzun dogu edo behintzat ardiak saitzera zoazela. Zer diozu horretaz?

E. Erretiretako asmorik ez daukat, bizi nazen artean ardiekaz segiduteko asmoa daukat.

G. Familiatik datortzun ogibide bat izan da hau?

E. Etxea dagonetik hona hemen beti egon dira ardiak. Niri herentzitik etorri jat. Lehennego nire aitxe,

atxitek eta berraitxitek egon dira eta honetara dedikatu dira.

G. Bakion, azkenego urteotan, bakarra izan zara baina holan izan da beti ala artzain gehiago egon da?

E. Bakion asko egon dire, leku askotan dedikatu dira ardietara:

(Eskuarekin seinalatuz herriari bira bat emoten hasten da Gorri herriko artzain guztiak gogoratu nahian)

Armuru, Uriarte, Gaubeka, Seube, Balanda biak, Zabale, Iturria, Larrondo, Sumitxa, Larragane,

Bekotxabolako Valentin, Galo, Zabaleneko Pantxiko, Txale, Patxulene, Bidetxe, (ie bertokoak ahaztuten

dodaz), eta San Pelaiyon be hainbet, izenak ez dodaz lar gogorazen, esatebaterako

Sagarre, Sanjuanalde,

Urkidi eta gehiago.

G. Eta zenbat ardi egoten ziren leku bakoitzean?

E. Etxe batzutan gehiago, ehun deo ehun ta piku, beste batzuetan larogei bueltan. Baina danak batute, mile ardi baino gehiago egongo ziren.

G. Zeu, zenbat ardi eukitzera ailegatu zara?

E. Berrehun euki dodaz eta berrehun baino gehiago be bai. Orain, hor kortan ikusi dozuzanak eta kanpoan

dekodazan apurtxu batzukez larogei inguru deukodaz.

g. No edo nora eroaten zenduezan ardiak bazkatzera (pastora)?

E. Mendira botaten ziren, mendi guztian mobiduten ziren, herriko terrenoatan eta baita Jatabekoatan be;

batzuk Diputaziñoari pageu eginten eutsien ardiak basoan erabiltzearren. Gero, neguen, behera bajetan

genduzan etxeko terrenoetara.

G. Herritik kanpora ere ateraten zenduezan?

E. Gitxi, nik, neuk, noizonoiz Emerandoraino eroan dodaz baina gitxi. Gehien berton, basoan, eta ez bakarrik

ardiak, zaldiak be soltuan ibiltzen ziren, ze ardietatik aparte beste abere batzuk be egoten ziren baserrietan

(Balandan, Larrondon eta Kanonien zaldiak be egoten ziren).

G. Gaztaia, okela, esnea edo zer izan da urtenbiderik egokiena?

E. Danetariko apur bat, bildotzak saldu, gaztaitxua egin eta dana. Esnerik, ez zan saltzen orduan, ardien esnerik ez.

G. Eta narrue edo lanie?

E. Narrue ez, gehien etxean hiltzen zirenen ganaduen buruetarako erabiltzen ziren baina besteekaz

mataderoakoak konpontzen ziren. Mataderoetara saltzen ziren, Sestaura, eta eurek etortzen ziren ganaduen bila

eta oinez eroaten ebezan; Lanie bai, ondo saltzen zan, koltxoiak egiteko, ezkontzarako koltxoiak konpondu

behar zirenean eta ondo saldu ganera, oraingo prezio berdinean saltzen ziran orduan be.

G. Noizko ataraten zenduezan bildotzak?

E. San Joseetarako edo Paskuatarako.

G. Pozik egon zara lanagaz?

E. Ingenieru izan banintz hobe, baina bai, gustu jat ofizio hau.

G. Eta zer esango zeunkioz gazte bateri, dedikatu ahal dala lan honetara?

E. Mendiak holan dauzen artean ez, ez dau pastorik. Mendiak negoziarako ez baiziren erabili, pinuak eta

eukalitoak ipinita, orduen bai; Naiko leku egongo zan ardi taldeak azteko.

Holantze hamaitu gendun «Gorri» gaz elkarrizketa eta ondo erakutsi euskun bakoitza bere alorrean «maixu»

dala.

Eskerrikasko eta hurrengorarte GORRI.



## ARATUZTEAK ARRAKASTA ESKASA BAKION



Naiz eta Kultur-Etxea, Euskera Batzorde eta Bakioko Eskolaren aldetik ahaleginak egin ARATUSTEEI

begirune berria emateko, ez gara txantxetan ibilteko herria.

Garen garelez agertzen hobe?

Dena den egon dira sabuezenak:

Mozorrotzen UMEAK dira nagusi. Beraien konpleju-eza, beraien imajinario eta fantasiak hainbat mezu bialtzen digute guztioi.

Eta batzuk, ez guztiok ordea, ondo moldatzen dira umeen antzera ondo pasatzeko eta nolabait beraien trebeziak agertzeko.

Hona hemen muestrarako argazki bi.

Txalotu ditzagun. Begira, begira ! da al dakizue zeintzuk diren?

# «BAKIO, HERRI EUSKALDUNA»

## izendatzea

Euskerea Bakioko jatorrizko eta bere-berea dan hizkuntzea dogu.

Gizaldi luzeetan, hagaitik edo besteagaitik, euskerea, bizitza ofizialetik lehengo eta, azkenaldiotan, bizita sozialetik geroago, apurka-apurka albo baten baztertuta lotu da.

Bada sasoia euskereari jagokozan lekua eta mailea begirune osoz atzera emoteko. Gizaldien joanean txitean-pitean galdutako izena eta izana birreskuratu daiazan, hatan be.



Aurrean esandakoa bideratu eta zuzenduteko hartu behar diran neurrietariko bat, Bakioko Udalak ekintza ofizial eta agiriko baten «BAKIO, HERRI EUSKALDUNA» izendatutea da.

Izendatze hau Bakion Euskerearen Normalkuntza Egitasmo Orokorren barruan kokatu eta beronen oinarrizko abiaburutzat hartu behar da. Honelango neurriak hartuteak beragaz dakarzan ondorio eta betebeharrak guzti-guztiak onartuta. Zalantza barik, erabagi politiko-liguistikoa dana, eta udalerriko Euskerearen Normalkuntza Egitasmoari ate politiko nagusia zabaldu behar leuskion neurria dana. Ate politiko nagusi honek asmoak euki ezeze, asmoak egia bihurtu be behar dauz. Hizkuntza Normalkuntzea beteteko baldintza egokiak eta lagungarriak adierazo behar deuskuz neurri politiko honek. Ez beite azalean lotu, etorri beite muinera!

Honelango erabagiaren helburua argi dago. Bertoko Bakioko nortasuna, arean da, nortasun euskalduna aldarrikatu, bertokoen zein erbestekoen aurrean argi be argi agirian izteko asmoaz, eta erabilerea bultzatutea, gurean euskerea barriro nagusitu artean. Euskeraz biziteko erabagi sendoa aldarrikatutea, azken baten. Etorkizuna etorri be, euskeratik jatorku eta.

Hortik sotuko danak bertoko zein erbestekoengan eragina izan daian. Bertokoak euren nortasunaz jaubetu eta lotsatu edo bildurtu bage ha edonon eta edonoiz erakutsi daikeen. Erbestekoak, bestetik, bertoko nortasunaz jaubetu, beroneri begirune izanda, Bakioko euskal nortasunari doitu daitekezan. Euron, batzuk eta bestean, jokabide linguistikoek euskeran bat egin daien.

Erabagi honen barri Bakioko herritarrak zein erbestekoak jakitun imini behar dira. Erabagi hau udalerriko sartu-urtekeretan hizki haundiz eta euskeraz bakarrik bide-erakusle batzuen bidez adierazo behar da (Gomutatu Eirelandako «GAELTACHT» lurraldeak adierazotekoak). Bakioko herritar eta udatiarrei izendatze honen zergaitia eta helburua era txukunean eta ofizialean adierazo behar jakez.

Erabagi hau hedabideetan be zabaldu behar da, Udalaren idazki ofizial batez zabaldu be.

**Iniaki MARTIARTU**

**1997ko zezeilean**

OHARRA:

(GAELTACHT: Eirelandako gaelikera hizkuntzea bizirik dauan lurralde babestua)

## ZER ESAN UGARI

### BAKIOKO HERRITARREI



Urkitza Ikastetxeko 6gn mailako ikasleak gara.

Azkenaldian konturatu gara zikinkerri asko dagoela herrian:

1.- Txakurren kakak edonon topatzen dira.

3.- Pilak, gurpilak eta beste hondakin batzuk erre kara botata.

3.- Papelontziak ez dira erabiltzen behar den bezala eta jendeak erre egiten ditu.

Beraz, proposamen batzuk dauzkaguz:

- Txakurren jabeek garbi

ditzazela txakurren deskuidoak.

- Birziklatzeko balio duten gaiak toki berezietan bota: pilak, kristalak, papalak...
- Oharrak eta abisuak jarri jendeak ikas dezan.

Espero dugu eskutitz honekin herria hobetzea. Beste batararte.  
Agur.

### BAKIOKO ABESBATZA

Bakioko musika astea prestatu eta aurrera eramaten duen elkartea hots, udaletxea duten talde eta pertsonaia

esberdinekin harremanak egiten du hardu eta koordinazio lanetan ere badabil egunotan, hartuemon hauek

nahiko aurreratuak daude.

Bestalde, datorren martxoaren 22.an Bakioko porrokian, Bakioko eta Mungiako abesbatzen eskutik kontzertu

bat egongo da 22,30 etan. Denborarekin kaleratu izango da abestu beharreko abestien zerrenda horrela nahi

duenaren eskura egondo delarik informazio hau.

## ITXAS-ALDEREN BARRIAK

ITURRIAN lan koreografikoa.

1997 urterako proiektu barri bat dogu ITXAS-ALDEko neska nagusien taldekoek. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eskeini deuskun diru-laguntzari esker, aurkeztuko dogu «Iturrian» izeneko lan koreografikoa. Hori dala eta, diruz lagundutako koreografia lana gauzatzeko konpromezua hartu dogu eta jo ta ke dihardugu datorren udabarrirako atarateko asmoaz.

Lan honen bidez adierazo gura dogun irudia XVIII. mendeko emakumearena da. Buru gainean ur-suilak garraiatuz, iturriaren inguruan sortu daiteken giroa irudikatu nahi dogu. Musikaren aldetik, Enrike Zelaiaren «Bizkaia» izeneko diskan «Kitolis» deritxon musika bildumatik hartu dogu doinua (L. Aranbururena). Gustora gabiltz prestakuntza honetan eta dana ondo badoa, udarako aurkeztuko deusagu Bakioko herriari, gure, dantza taldearen, 25. urteurrena ospatuko dogun bitartean.



### **ITXAS-ALDE** **Euskal Kultura Taldea**



Dantza era honeek, bai talde eta bai dantzen aldetik, ugaritasuna agertzen dabe.

Euskal dantzetan erabilten diran erremintak honeexek dira: ezpata, makil eta arkuak, baina hareen artean makila txikiekaz egiten diranak dira nagusi.

Dantza mota horreetan, batzuetan buruzagia agertzen da, beste batzuetan katximorroa, Otsagin boboa, Erriberan pertsonai ezberdinak, eta ia Euskal Herri osoan zahagi-dantzan jotzen dan zahagia.

Durangaldeko Dantzari Dantzan eta Xemeingo dantzan agertzen dira ezpatak, askotan dantzari berari izena emonez, esate baterako, «ezpata jokoak» bai nagusia zein txikia.

Gipuzkoako Brokel-dantzetan brokel edo ezkutua eta makil txiki bana erabilten dabez. Bereziak, benetan!

Arkuekaz be egiten dira dantzak, Oñatiko Korpuzti egunean eta Lanestosan, ahaztu barik zuhaitz edo makilaren inguruan egiten diran zinta batzeak.

Dantza guzti honeetako batzuk, gainera, herriak omendu gura dauanaren aurrean dantzatzen dira.

Beraz, ikusi daitekenez, hainbat erreminta erabilten da euskal dantzen inguruan, beroneen edertasuna handitzeko, hain zuzen.

**Unai Beitia (Artzakoa)**  
**ITXAS-ALDEko dantzaria**

## MAULEKO IKASTOLEA LARRIUNEAN!!



Maule Xiberoko uriburua dogu. Badakigu Xiberoa Euskal Herriko herrialderik txikerrena dana, lurraldez zein biztanlez.

Xiberoa Iparraldeko herrialderik txiroena be bada, ez dago han ia bape industriarik eta. Baina beste aldetik, euskal kulturea ondoen jagon izan dauan Euskal Herriko lurraldea da izan. Bertako «eüskara» goxoari zelan edo halan eutsi izan deutsoe orain artean xiberotarrek.

Azken urteotan, baina, «eüskarak» beherakada handia egin dauana ikusita, euskalduntasunari eusteko ikastola bat, EPERRA deritxona, sortu eben Maulen orain dala hogeita bost urte, gitxi gorabehera.

Urteak joan urteak etorri, hainbat izan dira han ikasi daben umeak. Gaur egun 65 ume daukaz beraren babesean.

Baina, gauzak okertu egin jakez azkenaldiotan. Ikastola-etxea zahartu eta arrakalez bete jake. Noraino? Hara, aditu! Hormak arrakaldu ezeze, hormok ezotasunak ta sitsek jan eta sabaia zulotu arte be. Itoginak edonon. Askotan, klaseak aterkinen babespean emon behar izan dabe eta. Behea be, euri-urak janda. Neguan, ikasgeletan hotz, kanpoan baino hotzagoa. Haizea sartu...!, hazurretaraino, sartu be. Aurtongo neguan, esate baterako, ikasgeletako hotza eta ezotasunari eutsi ezinik, traste eta aulki guztiak hartu eta aterpera urten behar izan dabe, klaseak hartuten urten be. Barruan eutsiko euskion ama-umerik ez egoan eta!

Egoera negargarri honetan egoitza barriaren bila hasi ziran. Eta aurkitu egin, Sohüta herrian aurkitu be. Baserri zahar ha erosi eta egokitu beharra dago eta horretarako dirua behar dabe. Harik arinen han hasteko! Euskal Herrian zehar hasi dira diru batuteko kanpaina zabala eratuten. Eta Bakiora be, TXIRRITXOLAREN bitartez, haren larritasuna eta laguntza gedarrak ekarri gura izan deutesueguz. Lagundu daiegun, ba!



# "EPERRA" MAULEKO IKASTOLAREN EGOERA

1.- Zer nolako egoeran dago gaur egün Mauleko Ikastola?

Egünko egünean bada Mauleko ikastola, 5 erakaslekin (4 denbora osoz eta bat denbora erdiz), 4 eüskarazko erakasle eta bat erdararen erakasteko.

Ikastola, Maule Herriko Etxearen prefabrikatü zahar eli batetan kakatzen da. Oso egoera latzean gira, umitate handia bada, termitak badira, zoladüarak ustelak dira, noiznahi zilatzten dira. Gainera, kanpoan ez dügü aterberik.

2.- Erakaskuntza.

Xiberotarrek emaiten dügü. Erakasleer moldatze lan handia galtegiten deikü. Lehen mailako urtetan, textuak xiberotarrez emaiten dütügü: ützümenak edo batuazko libürüak erabiltzen dütügü (baga biga matematikan, Axelko, Otsoko eta Beleko sailekoak hizkuntza gaietako).

Gure helbürüa da, gure ikastolan, ekasketak ürrentzen dütüelarik (11 urtetan) gai izan ditean bai eüskarazko oldoan jarraik dezaen edo edo frantses eskola batetan. Erran behar da, Seaskaren bigarren mailan Kanbon dela, Maulerik 65 Km - tan. Badakie harat joaitez, barnetegian egoten direla aste osoko. Azken urte horietan %50k, nonbait han, Kanbon jarraikitzen dü.

3.- Ikastolak nola iraün dü orain arte?

Ikastolan bereb haurra(k) ezarriz, etxeok badakie hilabetekal behar dükeela sosa eman. (400 L hilabeteko)

Bestalde, besta talde azkar bat badügu eta jei hanitx ontolatürrik da. Kantaldi, dantzadi, apaidü egitea (azken urte hauetan, Pastoraletako bazkari eta aihariak ikastolak dütü adelatzen (prestatzen).

Herriko etxeer ere sos lagüngoaz galteginik zaie, bera aski gütik ihardesten dü.

Halaere, erran behar da, 1991.az geroz erakasleak Hezkunde Nazionalarekin kontratu pean girela. Handik dügü esküratzengure hilabete saria (apalena: lagüntzale giza hartzen gütüe).

1994an eskola estatutua ezagütürrik da.

Hortako, langileer (erakasle ta beste) baldintzak zailtü zaizku. Bortxatü gira formakuntza jarraikitzea gure postüen titularizazioaren ardiesteko.

HABIA: 1901.ko legeko alkarte bat da. Bere helbürüa da, ikastolaren sos beharrez ihardestea. Partaide dira, bürrasoak, erakasleak eta lagüntzaileak.

Ikastola berria, 1992.az ideia hori бүrüan, gure egoera txarra ikusiz giren leküan.

Beti nahi üken dügü alkarte publiko batek har dezan bere gain obra jabegoa. Eskola publikoa izatea da gure helbürüa.

Hortakoz, igaran üdan, Xiberoko Herriko Etxe bakotxean, galteginik izan da 15 L x jende bakotx x 15 urtez. Gehiengo ez dü onartü.

Ez ginen haboro haidürü egoiten ahal. HABIA alkarte, beraz, deliberatü dü Sohütako etxe horren erostea.

Gaur egün lanak hasirik dira eta dena giro honean igaraiten da (naiz eta jende lagüngo - ezküz eta sosezbehar dügün).

## EÜSKARAREN EGOREA

Beste probintzietan bezala, hanitx galdu da.

Belaünaldi batek kasik ez dü haurrer erakatsi.

Maulen ez da kasik eüskera entzüten. Edo entzuten bada, beste herrietako jentea da.

Maule üngürüko herrietan dira haboroenik deseüskaldüntürrik.



Mauleko Ikastola / Habia alkarte. Etxeak de France karrila. 12164130 MAULE - ZUBEROA TEL. 59 28 33 20



Bena, erran nezake Xibero osoan kezagarria dela.

Gazte gütik mintzo da eüskaraz, erran gabe haurrak!

Ez da haboro familiaren bidez egiten den transmisioa.

Ikastolak eta AEK-k badüe non zer egin!

Xiberoan bada beste ikastola bat, Atarrantze ondoan (Alozen xüxen erraiteko). Hor, 12 ikasle, ama ikastola baizik ez da.

6 urtetan, ikastolan jarraiki nahi dütenek, gure ikastolara horra dira.

Beraz, Xibero osoko, 2 ama eskola eta lehen maila bat.

**Odette MOHORADE**  
**EPERRA ikastolako züzendaria**  
**Maule - XIBEROA**

**EUSKAL HERRIA KORRIKA !**

10. Korrika Martiaren 14tik 23 ra bitartean abiatuko da euskal herri zaharraren bideetan zehar; Arantzazun hasi eta Bilbon bukatu, mendi artean euskarak gordelekua topa zuen tokitik arrapaladan urten eta Bilbo Erdalgunera itsas.marea haundi, bizi baten antzera sartzeko, kale nagusiak hartuz.

Aita Villasante omenduko dau aurten Korrikan, urte luzetan egindako behar guztiagatik, euskal literaturan murgilduta, euskaltzaindian , etab...

Honegaz batera herri-ekimena omendua izango da, urtetan ikastolak, gau-eskolak, euskara taldeak, etab. bultzatzen ibili dan jende anonimo guztia; Honetarako herrialde bakoitzetik ordezkari bana joango da Arantzazura lehen kilometroa egitera.

Aurtengorako, kantari zozategik ipini dio musika eta Andoni Egaña bertsolariak testua. Korrikaren bideoaren gidioia Koldo Izagirre poetak egokitu du... Euskarak daukan presa azpimarratu ere; lege kanpotarrak gainditzeko, alferkeria, inkultura gainditzeko premia.

Anima zaitetz Korrika etortzera, euskarari beste bultzada bat emotera; Bakion Martiaren 22an, goizaldeko ORDU BIAK aldera, giro alaian itxarongo dogu. Erdu zeu be.



**BAITA**  
**KORRIKA - TXIKI ere**  
**Eskola-umeentzat 21 eko arratsaldeko 3-etan Bakioko Eskola**  
**aurrean hasita bira bat emoten herritik.**

**ZAHAR ETA GAZTE EUSKERAREN ALDE!**

# LEHIAKETA MUNDIALA

---

## ARTZAINZTA

Galderak:

- 1.- Nola jolasten da ARTZAIN JOKORA?
- 2.- Zer da ARTZANORRA?
- 3.- Zer esan nahi du "Ardi beltza bilatzeko gaua"?
- 4.- Zein da gazta eta gaztaberaren arteko desberdintasuna?
- 5.- Zer da ELTZORRUA?
- 6.- Zer da SOROE bat?
- 7.- Nola deitzen da ile duen ardia?
- 8.- Aipatu arbasoak artzain izandako Bakioko hiru sendi?
- 9.- Non eta zein jai ospatzeko batzen ziren artzainak maiatzaren 25an?
- 10.- Zer ospatsen dute irailaren 29an eta urtarilaren 17an?

Oharra: **GOGORA EZAZU!!!**

Galdera hauek ondo erantzunez gero saria irabaziko duzu Olentzeroetan.

# IRAKUR LIBURUAK KULTUR - ETXEAN ORAINGOAN BELDURREZKOAK

## **KATAKONBA BERRIA - Arthur Conan Doyle** **KRIMEN TXUNDIGARRIA**

Oraintxe, Marsellen heriotza zigorpean aurkitzen den Herbert Lenarc-ek egindako aitormenak, argibidea ekarri dio, mende honetako krimen harrigarrienetako bati. Honelako krimen batek, nik uste, ez du antzekorik inongo herrietan. Iturri ofizialetan honi buruz hitz egiteko uzkur diren arren prentsari emandako txostena oso gutxi baitira, gaizkile amorratu honek egia esan bide du; eta antza denez, azkenean...

35.orr.

## **URTEGI MISTERIOTSUA - Aitor Arana**

...Aurrean jarraitu zuten. Noizbeinka, urtegia erabili arte poliki eta tandaka hazitako estalaktita eta estagmitak topatzen zituzten, baina ez zieten aparteko trabarik sortzen. Urtegiako uraren eraginez, harrizko zutabe haiek ez ziren gehiago haziko, ez luzatuko; alderantziz baizik.

Galeria os itxia ez bazen ere (gizon bat burua makurturik ongi iragando zatekeen), bertako estutasunak Mikel larriturik zeukan jadanik. Baina orduan galeriak gora egin zuen eta aitona-bilobek ere gora egin behar izan zuten. Segi eta segi zuten beste zazpi bat minutuz eta, bat-batean...

53.orr.

## **VANPIROA - John W. Polidori**

Ustekabean, lau-oinka abiatutako oihanaren zamaria gelditu zenean, oinaztegiek agertu zioten handik hurbil orbelez erdi estalita zegoen etxola txiki bat. Aubrey zalditik jaitsi etxolara hurreratu zen, bertan, bertan hirirako bidea erakutsiko edo gutxienez ekaizak ziraueno aterpe eskainiko zion norbait topatuko zuelakoan. Hurbiltzen hari zela, trumoi.hotsak moteldu ziren une batean emakume baten garrasi lazgarriak entzun zituen, etengabeko farre mingots batez nahasirik. Aubrey harri eta zur gelditu zen; baina buru gainean lehertutako ortotsak bere onera ekarri zuenean leherrenak eginik, etxola barrura oldartu zen.

Iluntasuna erabatekoa zen; barneko zaratak, ordea, gidatu zituen haren urratsak. Antza, inor ez zen ohartu haren sartzeaz, zeren hots egin bazuen ere, zaratak etenik gabe jarraitu zuen eta inork ez zien aubreyren deiei erantzun, Bapatean...

